

Joxemari Aranalde

# 25 URTE AURTEN

Hori esan nion lehengoan ezagun bati: Hogeita bost urte zirela aurtan Xalbador hil zela.”Hogeita bost urte, e? —erantzun zidan—. Urteak nola joaten diran”

Bai, urteak joan egiten dira; eta norbaitek esan zuen bezala, gu ere bai haiekin, joan egiten gara. Hogeita bost urtetan laburtu dugu, beraz, gure egonaldia munduan, Xalbador hil zenetik.

OARSO urtekari honen urteroko deia etorri aurretik pentsatua neukan zertaz idatzi behar nuen aurtan; baina ez neukan pentsatua ekainaren 11n hasterik. Eta hor non ohartzen naizen batere ustekabean, ekainak 11 dituela gaur. Poztu naiz benetan. Xalbador zenaz idatzi behar eta ekainaren 11n hasi. Hori bai ezustearen ederra!

“Zer du honek ekainaren 11 horrekin”?—esan du honezkero bateren batek, baldin eta oraindik jabetu ez bada egun gogoangarri haretaz.

Duela 34 urteko ekainaren 11 haretaz ari naiz. Egun gogoangarria, gogoangarririk bada, bertsolariaren historian. Bertsolariekin plazan eza gutu den unerik ikaragarriena, hura izan da, dudarik gabe.

1967ko ekainaren 11n Euskal Herriko Bertsolarien Txapelketa ari da jokatzeko Donostiako Anoeta frontoian. Azkeneko txapelketako irabaztuna, Uztapide jauna, zai dago, zein botako dioten aurrez-aurre, txapela berria jokatzeke. Hartan, Xalbador dela erabakitzen du epaimahaiak.

Piztu da sua. Ireki ditu inpernuak atea. Hasi du ordu gorria. Irakin du entzulegoaren barrenak. Egin du leher haserrearen edo konforme-ezaren eltzak.

Eta Anoeta frontoia sumendi bihurtu da. Xixtu zorrotzen ziztuak erre behar du bertsolaria. Irentsi behar du. Hain da gorria unea! Hain da ikaragarria haserrea!

Entzulegoaren barrenak zertxobait hustutzera egin duenean, artean bizi den bertsolaria kantuz hasten da. Honela:

“Anai-arrebak, ez, otoi, pentsa  
neure gustura nagonik,  
poz gehiago izango nuen  
albotik beha egonik;  
zuek ez bazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik, ...



Hemen bertsoa eten beharrean aurkitzen da Xalbador, jendea txalo eta txalo hasten baitzaio. “errua ez daukat, ez, nik” entzuten duenean. Jendea ohartu da, beranduegi bada ere, berak jo dituen xix-

Uztopide eta Xalbador. 1967-VI-11an



tuek Xalbadorrentzat ez baziren ere, hura jo dutela. Txaloak bukatzean, honela segitzen du bertsoak, 3. puntua errepikatuz:

zuek ez bazerate kontentu  
errua ez daukat, ez, nik,  
txistuak jo dituzute bainan  
maite zaitzuet orainik!”

Eta bukaera horrekin, txalo eta txalo berriz ere iendea, txalo eta txalo entzulego osoa, txalo eta txalo bertsozalea. Jabetu da zer egin duen, eta nolabait erremeitu nahi du okerra; baina alperrik da. Xalbador zenak bertso famatu batean esaten duen bezala, “ez daike errepara / egin izan dena” (“Odolaren Mintzoa”, 341 orrialdean).

Horra hor bertso gogoangarria, txituek sortarazia eta txaloez etenarazia.

Xalbadorrez idatzi behar, eta egun honetan idatzi behar, eta gaur 34 urte betetzen dituen bertso hori eta gertakizun hura aitatu gabe ni hasi? Ez zen posible, ez baitzen bidezkoa eta gizalegezkoa.

Esan bezala, gaur 34 urte egiten dituen egun hura gogoangarria bada ere, eta egun haretako ordu eta bertso hura ere gogoangarriak badira ere, aurten 25 egiten dituen beste hura ez da batere ahazterrexagoa.

Azaroaren 7a zen 1976. urtean. Omenaldia zen Urepelen. Zeini, eta Donostian txistu ikaragarri haiek jaso eta jasan behar izan zituenari. Urepele da haren sorterrria eta han bertan egiten zaio omenaldia.

Han da egun haretan Euskal Herria. Han dira elizgizonak eta herrigizonak. Han dira Iparra eta Hegoa. Han gara... denak.

Ondo doa eguna. Bada ekitaldirik eta jendeak badauka zertan entreteniturik. Giroa ere ona da, haize hotz-hotz batekin. Dena ondo.

Dena ondo, omendua salbu. Hura “eri da”. Gero eta eriago da. Eta azkenean... hil egiten da.

Hura iluntzea, hura! Omenaldiko jaialdia bukatzen eta omendua hiltzen! Eta jendea, ia dena, ez jakinean, harek omen egin zion jauna bukatua zenik. Askok eta askok etxera bidean jakin zuen, autoko irratitari esker. Beste askok etxera iristean, Urepelen izan ez zirenak jakinaren gainean baitzeuden ordurako. Horrela joan zen iluntze hura, dena susto eta dena espantu eta ai eta oi.

Hura zen, hura!

Aurten 34 egiten dituen hau gogoangarria dela? Ez da gutxiagorako hura. Euskal-kantutegia aberastu eta guzti egin du egun harek. Gure folklore bihurtua da dagoeneko “Adiskide bat bazen” kantua, gertakizun harek sortarazia, eta gaur herri osoak kantatzen duena.

Bada besterik ere egun hura gogorarazten duenik; baina ez dut uste Xabier Leteren kantu hau bezalako agiririk duenik egun harek. Hemen duzu. Bihoa oiartzuar haundi honen omenez eta “Urepeleko artzaina” deituaren gogoangarri:

#### ADISKIDE BAT BAZEN

Adiskide bat bazen orotan biotzbera  
poesiaren hegoek  
sentimentuzko bertsoek antzaldatzen zutena.  
Plazetako kantari bakardadez josia,  
hitzen lihoa iruton  
bere barnean irauten oirazez ikasia.

Nun hago, zer larretan  
Urepeleko artzaina,  
mendi-hegaletan gora  
oroitzapen den gerora  
ihesetan joan hintzena..

Hesia urraturik libratu huen kanta,  
lotura guztietatik  
gorputzaren mugetatik aske sentitu nahirik.  
azken hatsa huela bertsoerik sakonena,  
inoiz esan ezin diren  
estalitako egien oihurik bortitzena.



Xabier Lete (1944)

Hori duzu kantua, Xalbadorren heriotzak sortarazia, gure folklorean sartua eta herriaren gogoanean hor izango dena, oiartzungo semea den Xabier Lete poeta ederrari eskerrak.

OARSO urtekariko irakurle, natorren orain oiartzundik zuenera. Ez zen Xalbador Xenpelarren herri emankor hau bixitatu gabea. Iparragirrek ez dakigu bixitarik egin zionik zuen herri honi, zuen bertsolari mirestuaren gonbitea hartzean; baina urepeldarra etorri ohi zen deitzean. Neroni gaijartzaile nintzela ere kantatu izandu zuen.

Jakin nahi al duzu, erreteriar, non daukazu, zuenean kantatu zuenaren testigantza bat? “Odolaren mintzoa” liburuan.

Honera ekartzerik nahi artzainaren bertso berriak Erreteriar jarriak? “Odolaren mintzoa” liburua daukanak alperrik ditu; baina gerta diteke zu haren jabe ez izatea, eta torizkizu liburuan daudenez dauden.



Hona hemen:

“Erreteriar, 1971’ko uztailaren 25’an.

Gai-emaile, Mikel Ugalde’k: Zuk, Xalbador, arantza artean dagoen loretxoari,, Xalbadorrek:

- 1/ Zuk arantza deitzen dezute ta guk aldiz elorria;  
zeruak eder egin zun bainan dena traba da jarria;  
lurretik duzun indar on hortan aurki ba bizi berria,  
loretxo horren antzean dago gaur ere Euskal-herria.
- 2/ Lehen askotan entzun izan dut, berriz egiten naiz jabe:  
gure Jainkoa gauzak agiten beti izan dela trebe;  
nonbait tontor bat ikusten bada azpian badauka labe;  
eta lorerik nehoiz eztugu ikusten arantzik gabe.
- 3/ Lore gaixoak bere usaia nola dezake zabaldu,  
berez hain pollit izanagatik arantzak estaltzen badu?  
Jaungoikoari guk eskatzeko hauxet dezagun har kargu:  
arantza hoiek gutxi ditzala eta loreak ugaltu.”

( “Odolaren mintzoa”, 340 )

Horra hor, erreteriar irakurle, Xalbadorrek zuenean “arantza artean dagoen loretxoari” kantatutako hiru bertsoak.

Hauetxek dira OARSOzaleontzat Xalbador zenaren heriotzeko urtemugak esan arazi dizkitan kontuak.

Norbaitz eta zerbaitz baldin badaukazu Urepeleko artzaina, erreteriar irakurle, aurten ere izango duzu zure mirespena erakusteko aukera beraren sorteri aldean. Betiko garaitsuan, aurreko 24 urteetan bezalaxe, omenduko dute aurten ere gure bertsolari ederjariora.

Ia Urepelen elkar ikusteko zoria izaten dugun. Jainkoak nahi dezala.